

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 565/2016 Erabakia, irailaren 13koa, onartzen duena hitzarmen bat izenpetzea Asparreneko Udalarekin, elkarren artean informazioa trukatzeko zerga helburuetarako**

Arabako Foru Aldundiak eta Asparreneko Udalak uste dute interesgarria dela bakoitzak esleiturik dituen eginkizunak betetzeko elkarlanean jardutea, informazioa trukatzeko zerga helburuetarako.

Herri administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa, besteak beste, zenbait arau jasotzen dute, hala nola 30/1992 Legeak, (azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena). Izan ere, lege horrek 4.1.d) artikuluan ezartzen du ezen administrazioen arteko harremanak gidatu behar dituen printzipioetariko bat dela erakunde leialtasuna, zeinaren bertutez "bakoitzak, bere eremuan, lankidetzaren eta laguntza aktiboa eskaini beharko ditu, beste administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez baliatzeko galdegiten diotenean."

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak berak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa) 4.1.c) artikuluan xedatzen du ezen herri administrazioen arteko harremanetan nagusi izan behar duen printzipioetariko bat dela gainerako administrazioei, beren eskumenak baliatuz darabilten jarduerari buruz, behar duten informazioa ematea.

Tributuez den bezainbatean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 91. artikuluan 1. paragrafoan dio ezen erakunde publiko guztiek eman behar dizkietela zerga administrazioari hark xedapen orokorren bitartez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dituen datuak eta aurrekari guztiak, tributuei buruz axola dutenak, eta orobat eman behar dizkietela hari nahiz haren agenteei sostengua, partaidetasuna, laguntza eta babesa, beren eginkizunak bete ditzaten. Gainera, arau horretan bertan xedatutakoaren arabera, zerga administrazioari datu pertsonalak lagatzeko ez da beharko datuen titularraren baimeirik. Hala, bada, ez da aplikatuko herri administrazioei buruz Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak 21. artikuluan 1. paragrafoan dioena. Horiek horrela, Lege Organiko horren 11. artikuluan 2. paragrafoaren a) letraren arabera, interesatuak ez du adostasunik eman beharko lege batek datuak lagatzea baimentzen duenean.

Bestalde, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 92. artikuluan 1. paragrafoaren b) letran dio ezen zerga administrazioak bere eginkizunetan eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak erreserbatuak direla, eta ezin direla erabili kudeatu beharrekoak dituen zerga edo baliabideak aplikatzeko eta dagozkion zehapenak ezartzeko baizik, eta ezin zaizkiola beste batzuei utzi edo komunikatu, non eta lagapenaren helburua ez den, besteak beste, "zerga administrazioekiko elkarlana, zeinek bere eskumeneren eremuan dituen zerga betebeharrak betetzeari begira."

Bestalde, Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), 8. artikuluan, udal erakundearen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren aipatzen du, hitzarmen bidezkoa, toki zergak eta toki erakundearen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko zereginari dagokionez.

Bestalde, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa), 5. artikulua 3. idatz-zatian, aukera ematen du toki erakundeen eta foru aldundiaren arteko zergak aplikatzeko lankidetzak formulak ezartzeko.

Esparru juridiko hori eta Asparreneko udalak esleitutako eskumenak eraginkortasunez kudeatzea dira lankidetzak hitzarmena justifikatzen duten kausak, alegia, informazioa trukatzeko sistema bat ezartzea, informazioa arinago baliatzearen eta kostu gutxiago eragitearen.

Kontuan hartuz 52/1992 Foru Arauaren 8.7 artikuluan xedatutakoa (abendua 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa), zeinak ahalmena ematen baitio Diputatuen Kontseiluari bere eginkizun betearazlea baliatuz lankidetzak hitzarmenak egiteko Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego, probintzia eta herri administrazioekin.

Ikusirik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Haren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea lankidetzak hitzarmen bat izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Asparreneko Udalaren artean, elkarren artean informazioa trukatzeko zerga helburuetarako. Hitzarmena erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari hitzarmena bera eta hitzarmena betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTINEZ**